

Zigorra handitu nahi(keria)? Altsasuko kasuaren harira

Jon M. Landa

EHUko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedra zuzendaria

1. Sarrera.

Guardia Zibil batzuen eta beraiekin zeuden emakumeen aurkako erasoak jada epaia jaso du. Ez da behin betiko erabakia, oraindik horren aurkako helegitea aurkeztu daitekeelako. Errekurtso horietan ugari izango dira, zalantzarik gabe, eztabaidagaiak. Artikulu honetan bi alderdi besterik ez dira jorratuko.

2. Delitu pilaketa.

Antzematen da kalifikazio juridiko anitz pilatzen direla egitate berberen gainean. Alegia, lesioak erdigunean egon arren, horri gehitu egiten zaizkio atentatu delitua, desordena publikoak edota mehatxuak. Lesioak halako liskarraren testuinguruan gertatzen badira, hainbat pertsona denak batera jardunez, ez du ematen horrez gainera desordena publikoak ere hain erraz leporatu daitezkeenik. Edo lesioak, larriak badira, nekez pentsa liteke mehatxu delitu independente gisa inori egotzi dakioketik. Askotan zuzenbide penalean egitate batzuen aurrean zalantzak daude: kalifikazio hau ala bestea ezarriko? Teknikoki horri lege pilaketa deitzen zaio, zeren eta arazo interpretatiboa zein lege aplikatzean baitatza. Aplikagarriak diren legeak azkenik, ahalegin interpretatiboaren ostean, lege bakar, delitu bakar bilakatzen da. Lege pilaketaren filosofiaran arabera delituak (eta horren zigorrak) pilatu behar, kontrakoak gertatzen da: zigorra ez da biderkatzen. Eta filosofia interpretatibo hori Altsasuko kasuan aplikatu zitekeen. Horren ordez bai fiskaltzak bai epaileek bestelako filosofiarako jo izan dute arrakastaz: delitu bat ikusi behar, delituak onahi daude. Horri teknikoki delitu pilaketa (ez lege pilaketa) deitzen zaio eta horregatik zigorrek gora egin dute nabarmen.

3. Gorroto delitua.

Ildo beretik, delitu bakoitzean normalean kode penalak gutxieneko zigor bat eta gehieneko zigor bat aurreikusten du: adibidez, lesio delitutan 3 hilabetetatik 3 urte arteko presoaldia (edo isuna besterik gabe) aurreikusten da.

Hain zabal den esparru horretan Altsasuko epaileek berriro ere zigorrak gorenarikoaren aldeko apustua egin dute kasu gehienetan eta horretarako, besteak beste, ideologiarengatik gorroto astungarria egotea (ZK 22.4 artikulua) arrazoibide gisa erabili dute. Guardia Zibila gorrotatzea izan al daiteke zigorra handitzeko arrazoi bidezkoa?

Esparru konparatuan bai mende-baldeko Europar bai Estatu Batuetan gorroto delitua (hate crime) XX. mendeko 90. hamarkadatik aurrera egonkorta da: lehenengo aldiz, zenbait talde etnikoren kasutan, zigor handiagoak ezartzen hasi ziren, hain zuzen ere delitua egiteko arrazoiak talde oso baten aurkako arrazakeria nabarmena zenean.

Zigorra handitzeko arrazoiak ez zen gorrotatzea, baizik eta gorroto hori delitu baten bitartez talde «ahul», zaugarri, erasotzen erraz denaren aurka modu nabarmenean zuzentzea. Beste hitzetan, pertsona beltzari, adibidez, jipoia ematerakoan, gehiago zigortzen zen bakarrik argi baze goen helburua ez zela hura –edota hura bakarrik– erasotzea, beltz guztiak –talde baten gisa– mehatxatzea baizik.

Gorroto delituen jatorri historikoak diskriminazioaren aurkako politikekin zerikusi zuzenekoak du. Historian zehar badira eskubiderik gabe baztertuak izan diren gizataldeak eta horiek defendatzeko politika publikoak sortzen joan ziren hasiera batean beltzak edota juduak zuzenbide penalarren bitartez ere defendatzeraino.

Gorroto delituak baziren genozidioaren erdigunean egon ahal ziren gizataldeen defentsa osagarria eta horregatik duela gutxira arte ez ziren nazio taldeak, talde etnikoak edota erlijio taldeak besterik babesten.

Handik, pixkanaka babesa emakumeengan, edo sexu orientatibidearen arabera bildutako kolektiboetara zabaltzen hasi da. Baina betiere kasu horietan filosofia berbera zen: lesio delitua, kalte delituak edo antzekoak gehiago zigortzen ziren, delituaren gaitzak historikoki diskriminatua izandako talde oso bat harrautzeko asmoa zegoelako.

Askotan, ordea, gorroto delituaren erabilera abusu ahaleginak izan dira. Eta hori hain justu ere ideologia politikoaren harira gertatu da. Inork gutxi jarriko du auzitan nazi «ideologian» oinarritutako *skinhead* batzuen jipoia astundu ezin denik. Neonazi batzuek pertsona beltz edo homosexual bat makilatzen badute, gorroto astungarria aplikagarria da herialde gehienetan.

Inon ordea egiten ez dena bada, gorroto delitu hori erakundeak babesteko erabilteza: are gutxiago, polizia. Horrek ez du esan nahi polizia babestu ezin denik. Horretarako Zigor Kodeak baditu bere tresnak. Baina gorroto delituaren filosofia polizia babesteko erabilteza lekuz kanpo dago. Diskriminazioaren aurkako tresna eta erakunde babesa ezin dira nahastu.

4. Azken hausnarketa.

Artikulu honetan bi alderdi nabarmendu ditugu, Altsasuko akusatuen zigorra handitzearen aldera. Bata, delitu bakarra ikusi behar, egitate berberen oinarrian delitu pilaketa ikusi nahi izatea. Bestea, delitu batzuk gorroto astungarriren bitartez presoaldia luzatzeko.

Bi kasuetan, helburu komuna antzematen da: zigor eskaera loditzea, kasu batzuetan giza hilketa-delituak berak pairatzen dituen zigorrerata hurbilduz!

Nahia eta nahikeriaren arteko desberdintasuna, barneko asmo txarretan edo kontrolrik gabeko grinatan egon ohi da. Zuzenbide hainbeste behar hartzen denean, bi balantzak dituen Justizia irudi klasikoak buruan edukirik, zalantzak baino gehiago sortzen dira emakumeak benetan begietan zapi duenaren inguruan.

Berezko ahotsa

Berezko eta naturalizat hartzen ditugun zenbat gauza ez ote diren uste baino askoz gehiagotan kanpoko eragileek, gizarteko arau idatzi gabek, baldintzatuak. Haietako bat ahoskera izan daiteke. Hitz eta hizkera kontuetan dudak jakin-minak bultzatuta, erreparatua nion hizkuntza batetik bestera aldatzean jendeak ahots tinbrea aldatu ohi duela.



JIRA
Angel Erro

Malagako lagun madrildartu bati ere behin galdetu nion ea ez zitzaion iruditzen gizon andaluziar (prototipiko) askok bazutela oso ahots zolia, *Zortzi euskal abizen* filmeko senargaiaren

bi adiskideen tankerakoa.

Lagunak ez zuen uste, eta adibideak emanda ere ez zuen ikusten. Bestetik, egiaztatu dut ar-mairutik ateratzean gizon askok ahotsa loditzea iruditzen zirela, pixkanaka. Halere, joera nagusia dugu ahotsa oso ezaugarri berezko eta naturalizat hartzekoa.

Zenbait ikerketaren arabera, azken belaunaldian emakumeen ahots tinbrea sakonago bilakatu da, amek eta amonek zutenaren aldean, gizartean eta lanean hartzen joan diren kokapen berriari zor. Frekuentzia nagusia 23 hertzio jaitsi omen da. Bestelako jokaerei erreparatu genien: janzerari, gorputz komunikazioari... Begirune pertsonal eta profesionala lortzearen murrizte horraino ere iristea ez nuen inoiz irudikatua.

Puntualea

Puntualea naiz baina etxetik irtear nagoenean, hartatik ez bada honegatik, beti egiten dit ihes (bost minutuko atzerapentxoarekin bizi zaretok ulertuko nauzue).

Atzo goizean, adibidez, 40 minutu nituen gosaldu eta janzteko: utzi nuen katilua arraskan eta non ikusten dudana, sukaldeko leihoatik, pareko



BIRA
Miren Amuriza

bizilaguna alfonbra astintzen: ostra! Eta nik garbigailua bart gaueatik hutsitu barik... Arropak eskegitzen nabilela, mugikorra joka: kuadrillako baten eguna; Whatsapp taldean zorianak, amona baten GIFa, jji eta aja... Eta handik ordu laurdenera, logelara itzuli nintzenezan, falta zela konturatu: kaka! Segituan hasi nintzen bila, armairuan, ohepean: non gorde zara? Ordea, haren arrastorik ez. Banoa komunera, atostean begiratzean, eta ispluaren aurrean: ui, iletxo bat kokotsean! Kendu eta buelta sukaldara mahaiean, frigorifikoaren gainean, zartagin tiraderan begiratzera: zartagin hau... garantian ote dago oraindik? Eta, hantxe, tiraderan burua sartuta nengoela, pisukideak atzetik: zeren bila zabiltza? Eta nik: dembora galdu dut! Eta berak: berriro? Eta nik: bai, mugikorrarekin despatatu naiz une batez eta askalako non sartu den... Eta berak: ez zenuen leihoren bat zabalik edukiko, ez? Eta nik: joder, arropak eskegi ditudanean!

Leihoatik eskapatu zitzaidalako, horregatik berandutu nintzen atzo. Ez puntualea ez naizelako.